

# HERNANIK kronika

2003 urtea  
Urriak 19  
Igandea  
Alea: 916  
[www.kronika.net](http://www.kronika.net)

## BULARREKO MINBIZIAREN AURKAKO EGUNA -KATTALIN ELKARTEA

### “Bularreko minbiziaren aurrean oso garrantzitsua da jarrera positiboa hartzea, sendatzen asko laguntzen du”

■ Bularreko Minbiziaren Aurkako Nazioarteko Astea da hau eta ostegunean ferian laguntza eta informazio mahaia jarri zuten Kattalin Elkarteko kideek ■ Gaur da Bularreko Minbiziaren Aurkako Nazioarteko Eguna.

**BULARREKO Minbiziaren Aurkako Nazioarteko Astea** den honetan Kattalin taldeko emakumeak mahaia jarri zuten osteguneko ferian: jendeari lazo arroxak jarri, dirua bildu eta emakume askok jasaten duten gaixotasunaren testimonio izatea zuten helburua. Hernanin 15 bat emakume dabilta Kattalin elkartean eta denek pasa du te bularreko minbizia.

■ Zeri egin behar dio aurre bularreko minbizia duen emakume batek?

Oso larria eta gogorra da. Hori ez dago esplikatzerik. Batetik, badakigu zer den minbizia eta bestetik, emakume batentzat psikologikoki oso gogorra da bularreko minbiziari aurre egitea.

■ Bularreko minbiziaren inguru zein aurrerapauso eman dira azkeneko urteetan?

Zentzu guztietan egin da aurrerapausua: medikuntza mailan adibidez, orain ez da zertan bularra galdu behar. Gainera orain informazio haundia dago eta horrek asko laguntzen du. Bularreko minbiziari aurre egitea ez da inoiz erraza izan baina garai batetik hona badago diferentzia.

■ Eta zer dago oraindik egiteko?

Beti itxoiten gaude, gauzak ateratzen ari dira baina asko dago aurreratzeko. Oraindik ere ez dakigu nondik datoaren bularreko minbizia. Bestetik, emakume askok orain



**Patro, Pilar eta Maria Luisa ferian izan ziren ostegunean lazo arroxak banatzen.**

dik ere gaixotasuna gorde egiten dute. Gu hor ezin gera sartu, horretan zer ikusi handia baitauka bakoitzan nolakoa den. Baina gordetzeak ez du ezer aurreratzen.

■ Zer iritzi duzue prebentzio planei buruz?

Prebentzio planak direla eta 50 eta 64 urteko emakumeei probak egiten zaizkie eta hortik kantzer asko harrapatu dira. Hori aurrerapauso haundia da, baina uste dugu adin tarteak handiagoa izan behar duela, adin tarte horre-

tatik gora asko ateratzen baitira eta gero eta gehiago hortik beherakoak. Nafarroan adin tarte handiagoa da: 45-69 urte bitartekoak.

■ Gaur egun sendatzeko aukera handia al dago?

Bai, eta gertatzen dena da gaizki ateratzen dena segituan jakiten dugula, hori asoziazioan geratzen baita. Baina ondo daudenak, gu bezala, ez dira gure artean hainbeste ikusten. Bestela, oso garrantzitsua da medikuek esanda koarekin fidatzea, sendatze-

ko aukera handia dago baikoitzak jarrera positiboa hartzten badu.

■ Kattalin taldeak zer lan egiten du?

Lan haundia egiten da eta dena boluntarioa da: hitzaldiak, eskursioak, eta abar. Gure helburua da informazioa eta jendearentzat testimonioa izatea. Barrura begira asoziazioan gauden emakumeak batak besteari laguntzen diogu: psikologoa daukagu, laguntza taldeak daude, eta abar. □

## ■ ERRUGBIA

### Hernani-Fenix gaur Landaren

SENIORREN ekipoak gaur egundiko 12:00etan jokatuko du Landaren, etxeko aurreneko partidua ligan. Aurretik, 11:00etan, jubilek jokatuko dute partidua. □

## ■ BOLEIBOLA

### Hernani-Santander gaur kiroldegian

EMAKUMEZKO taldeak Santanderren kontra jokatuko du ligako partidua. Aurreneko partiduan Hernaniri emaitzek ez diote gehiegi lagundi, eta pixkanaka esperientzia hartzen joan behar du oso talde gaztea delako. Partidua 11:30etan. □

## ■ FUTBOLA

### Hernani-Mutriku gaur Zubipen

AURREKO partiduko suerte txarrari buelta emateko aukera du Emakumezko ligako taldeak gaur Zubipen. Hernaniarrek Mutriku izango dute kontrario, 17:00etan hasita. □

## ■ GIMNASIA

### Gipuzkoako txapelketa gaur kiroldegian

KONJUNTOKAKO Gipuzkoako txapelketa jokatuko da gaur kiroldegian, 11:00etan. Donostiak eta Ipuruak neurtuko dituzte indarrak. Jaione Tejedor hernaniarrak hartuko du parte Ipuruarekin. □

### Perretxiko erakusketa gaur Plaza Berrian

GAUR eguerdian Urretxaren perretxiko erakusketa egongo da Plaza Berrian eta argazki lehiaketako sariak ere gaur banatuko dira. □

**ARALAR TABERNA**  
Zapa 8 - 943 33 15 06 - Urriaren 28 arte oporrogatik itxita



**Iñigo Royo Manterola**  
Kiromasaia Naturopatia  
Reflexología Homeopatía  
Auriculoterapia Iridología  
Arazo neurologiko eta  
bizkar hezurrekoen konpontzea  
Sta. Barbara 42 - 2.esk. - 626 807 633



**Jatetxea**  
*Venta Berri*  
Arano - Nafarroa  
(948) 51 40 18  
Larunbatetan itxia

**SANTA BARBARA**  
PEUGEOT  
Talerrak: Larramendi15 - Exp: Arantzazu 15 943 551139 / 943 551979  
Auto eta furgoneta zaharrak, 2.eskukoez aldatzent ditugu

406 Diesel HDI 110	- Aire egokitua	12.822 €
Ford Escort Turbo Diesel		4.507 €
Berlingo Diesel	- Aire egokitua	8.816 €
Jeep Cherokee TDI	- Aire egokitua	9.818 €
Fiat 1 3 ate Diesela		2.885 €
Land Rover - Pik NP	- Aire egokitua	2.855 €
Saab Coupe 2.000	- berri berri	5.812 €
Rover 45 Turbo Diesela	- Aire egokitua	9.616 €

...eta hainbat kotxe merke



Ostiral gaueko kontzentrazioa plazan. Jende asko bildu zen.

## Erakundeen babes haundiagoa eskatu zuten azken polizia operazioa salatzeko kontzentrazioan

■ Hernanin jende asko bildu zen 'Gora Euskal Herria Euskalduna. Atxilotuak Askatu' lemapean ■ Berriako arduradunek "euskalgintza jasaten ari den egurra" salatu zuten.

MARTIN Ugalde Kultur Parkeoa osatzen duten enpresen kontrako operazioa salatu eta Joamari Larrarte hernaniarra eta beste 7 atxilotuak askatzea eskatzeko kontzentrazioa egin zen ostiralean Hernanin. Kontzentrazio ondorenean Lekuonak hitz egin zuen Berriako ordezkarri moduan eta "nazka eta amorrazioa" sentitzen dituztela esan zuen Egunkaria itxi eta 8 hilabetera

zer gertatu den ikusita. "Eraso hauen aurrean erakundeek zerbaite gehiago" egin behar dutela esan zuen Lekuonak eta horretarako gizartea "zerbaite artikulatu" behar duela, erakundeei egiten dutena nahiko ez dela adierazteko. Bestalde, kezka agertu zuten inkomunikatuta dauden bitartean Juamari Larrarte eta beste 7 atxilotuak jasan lezaketen egoeraren aurrean. □

Amnistiaaren aldeko mugimenduak kontzentrazioa deitu du gaur 19:00etan plazan. Bihar, astelehena kontzentrazioak daude plazan eguerdiko 12:00etan eta arratsaldeko 20:00etan euskalgintzako hainbat taldek deitua. Bestalde, astelehenean Madrilera joateko autobusak aterako dira Hernanitik eta Garin tabernan dago izena emateko aukera. □



Joxan Pagola Garin taberna aurrean, omenaldiko une batean.

## Joxan Pagola 'Beltza'k ongi istorria jaso zuen ostiralean, 19 urte kartzelan egin ondoren

■ Gauerdiko 24:00etan iritsi zen Algezirastik Hernanira eta Garin aurrean egin zion ongi istorria herritar talde haundi batek.

JOXAN Pagola 'Beltza' preso hernaniarra ostiralean aterazten Algezirasko espeluetik, 19 urtetik gora espelxeratua egon eta gero. Herrian ongi istorria egin zioten goizaldeko 24:00etan eta Joxan Pagola berak hitz batzuk egin zituen.

Barruan gelditu direnak gogoratzeaz gain, Algezirastik etxera bueltan "dispertsioaren gogorra" nabaritu zuela esan zuen, eta dispertsioa bukatzeko bideak jarri behar zirela nabarmendu. Bestalde, esker onak azaldu zizkien "presaok

bixitatzen hainbeste kilometro egiten dituzten" senide eta herritarrei.

**Omenaldia 25ean**  
Joxan Pagolari eta Gabino Etxeberriari omenaldia egingo zaie datorren larunbatean. □

## Truke Astea Andragoto ateneoan

■ Bihar "Trukeari buruz esperientzia lokal" hitzaldia emango du Lasarte-Oria Bai elkartea, 19:30etan.

ANDRAGOTOK trukeari buruzko astea antolatu du eta zenbait ekitaldi egingo ditu gai horren inguruan: astelehen eta asteartearen trukeri buruzko hitzaldia izango dira eta asteazken eta ostegunean objektuak trukatzeko aukera izango da ateneoan.

Biharko hitzaldia trukeari buruzko esperientzia baten berri emango du Lasarte-Oria


bai elkartea. Asteartearen, berriz, Eduardo Troncosok hitz egingo du: "Trueque: teoria y práctica (modelo argentino). Hitzaldiak 19:30etan izango dira.

Asteazken eta ostegunean gauzak trukatzeko aukera izango da eta Andragotok jendearei eskatu dio trukatu nahi dituen gauzak eramateko ateneora, (Izpizua 13). □

## Artisau erakusketa eta, sagardoa eta gaztaina jatea gaur Ereñotzun

EREÑOTZUN artisau erakusketa eta sagardo eta gaztaina jatea dago gaur arratsaldeko 17:00etan, Kultur Astearen barruan. □

### ESKERTZA



#### NEMESIO ZEBERIO ARANBURU

2003ko urriaren 16an hil zen, 73 urte zituela

Nemesioren familiak eskerrak ematen dizkizuegu egun hauetan gurekin izan zareten guztoioi, eta zuen laguntza eta babesera eman diguzuen denoi. Eskarrik asko.

Nemesio Zeberioren familia

Hernanin 2003ko urriaren 19an

### I. URTEBETETZEA

#### Petra Otegi Goikoetxea

2002ko irailaren 20an hil zen



Zure indarra, bizitzeko gogoa eta maitasuna beti izango dira gurekin. Eskerrik asko eman diguzun guztiagatik.

Mirari, Juan eta sendiak

Hernanin, 2003ko urriaren 19an.

### IRAGARKI MERKEAK

Arotz profesionalak etxeko lan txikiak egingo lituzke Hernani inguruan. Behar baduzu deitu: 656 78 64 15 (Kepa)

Lokala alokatzen da. 53 m<sup>2</sup> dauzka eta zentro-zentroa dago. Interesatuek deitu telefono honetara: 646 27 54 63

Emakume bat behar dugu etxeko lanak egin eta umeak zaintzeko. Interesatuek deitu: 943 55 27 79

Emakume bat behar da etxeko lanak egin eta umeak zaintzeko, goiz eta arratsalde: 07:00etatik 11:00etara eta 16:30etatik 19:00etara : 658 73 88 32

### ZERBITZUAK

#### TELEFONOAK

- Taxiak: 943 550093
- Udaltzaingoa: 943 333288
- DYA: 943 464622
- Autobusak: 943 556662
- Anbulatorioa: 943 006666
- Jokalari anônimoak: 943 331103

#### FARMAZIAK

- Egunez: Gomez Justel  
Kale Nagusia 14  
☎ 943 554892
- Gauez: Ansa  
Andoain. Ondarreta  
☎ 943 591302

### Ehiza garaian:

- GOSARIAK eta HAMAIKETAKOAK
- EGUNEKO MENUAK
- MENU BEREZIAK
- ERRETEGIA

**ARIZMENDI**  
jatetxea



Antziola auzoa, 86  
660 976 278 • 20120 HERNANI

Arizmendiko ateak  
berriro zabalk  
behi ta txori artean  
ez da leku hoberik  
zuentzat egunero  
asteartea ezik  
nire sukaldaritz  
eskaini nahi det nik  
Gaizka  
(Arizmendiko sukaldaria)